



## **ERABAKIA, FUTBOLEKO EUSKAL FEDERAZIOKO APELAZIO BATZORDEAK 2015EKO MARTXOAREN 16AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA AURRERA KE-K AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA GAITZESTEN DUENA**

---

**Espediente-zenbakia: 16/2015**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** ■■■■ jaunak, AURRERA KEko presidentek, errekurtsoa aurkeztu du Futboleko Euskal Federazioaren Apelazio Batzordeak (aurrerantzean, FEFAB) aurtengo martxoaren 16an hartutako erabakiaren aurka.

**BIGARRENA.-** Kirok Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtso hori izapidetzeko onartu zuen, eta errekurtsoa jaso duen aldeari jakinarazi zion, hiru egun balioduneko epean zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapideak proposatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Futboleko Euskal Federazioko (FEF) idazkariak aurtengo apirilaren 22ko sarrera-erregistroko idazkiaren bidez, onartutako lekualdatzea bideratu zuen. Espediente osoa erantsi zuen.



## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENENGOA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

**BIGARRENA.-** Hona hemen hizpide dugun kasua ebazteko interesgarritzat eta garrantzitsutzat jotzen diren gertaerak:

**1.-** Arbitroaren aktan jasotakoaren arabera, Ondarroan otsailaren 8an Billabona KEren aurka eginiko partiduan, errekurtsioa aurkeztu duen taldeak bere jokalaria [REDACTED] jauna jokalarien zerrendan sartu zuen.

**2.-** Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Lehiaketa eta Diziplina Batzordeak (GFFKLDB) otsailaren 10ean eginiko bileran erabaki zuen AURRERA KEko presidenteari jakinaraztea aipatu jokalariak federazioko zigorra duela, eta, beraz, idatziz argitzea egoera hori otsailaren 17a baino lehen, egun horretan hartu behar baitu Batzordeak zigorra jartzeko aukerari dagokion erabakia.

**3.-** El AURRERA KEk ez zuen alegaziorik egin.

**4.-** KLDBk otsailaren 17an eginiko bileran erabaki zuen "Galdutzat ematea AURRERA KEk galdutako partidua (0-3 emaitzarekin) gehi



75,00 €-ko isun osagarria, [REDACTED] jokalaria jauna behar ez bezala jokalarien zerrendan sartu izanagatik (FEFren Diziplina Araubidearen Arautegiko 46 eta 30 artikulua).

**5.-** Zigorra zein den jakin ondoren, elkarre errekurtso-egileak -otsailaren 18ko data duen alegazio-idazkiaren bidez-, bertan behera uzteko eskatu zuen. Honako hau alegatu zuen, laburbilduta, orain interesatzen zaigunari dagokionez: **a)** ez zuten behar ez bezala sartu jokalarien zerrendan; **b)** soilik aktaren idazketa digitalari eta horrek eragiten duen egiaztatzeko zailtasunari lepora dakiokkeen hutsegitea egon zen; **c)** hutsegitea tartean dauden jokalarien lehen abizenak eta izenen lehen letrak bat egitearen ondorio izan daiteke; **d)** arbitroak 10. zenbakia idatzi zuen ([REDACTED] jokalariai dagokio) eta [REDACTED] izena idatzi zuen (hori 3. zenbakia da, eta bere zorroa partidu hartan hutsik zegoen, zigortuta baitzegoen); eta, **e)** 4 argazki erantsi ditu.

**6.-** FEFen Apelazio Batzordeak martxoaren 16an eginiko bileran, gaitzetsi egin zuen klubak jarritako errekurtsoa, zehazki, arrazoi hauek oinarri hartuta: **a)** arbitroak AURRERA KEko jokalarien zerrendari buruzko atalean 10. jokalaria sartu zuen, "[REDACTED] NANA: [REDACTED]"; **b)** AURRERAK ez zuen alegaziorik egin, eta horretarako epea igaro zen inolako azalpenik eman gabe; **c)** ezin dira aintzat hartu apelazio errekurtsoan eginiko alegazioak, inola ere egiaztatu gabeko izatezko baieztapen hutsak direlako.



**HIRUGARRENA.-** Ikusita eztabaida zein egoeratan azaleratu den, bidezkoa da, lehenik eta behin, orain aurkeztutako errekurtsioak azpimarratzeko moduko gertaera, froga edo oinarri berririk gaineratzen duen aztertzea. Galdera horri ezezkoa eman behar diogu; izan ere, erreklamazioa egin duen klubak behin eta berriz aipatzen ditu argudio berberak, eta, berriz ere aurkeztu ditu plantillako zenbakien zerrenda eta jokalariaren argazkiak.

Gauzak horrela, Batzorde hau bat dator eta bermatu egiten du FEFko Apelazio Batzordeak hartutako erabakia.

Hain zuzen ere, kontuan hartuta aktak *iuris tantum* egiatasun-presuntzioa duela, aurkeztutako frogak eta alegazioak ez dira nahikoak arbitroak idatziz jasotakoa eta adierazitakoa indargabetzeko. Azken batean, frogatzeko eginiko ahalegina ez da nahikoa, eta horrez gain bitarteko eta ebidentzia sendoagoak aurkeztu beharko lirateke.

Amaitzeko, adierazi behar da Batzorde honi eskatu zaion ahaleginean, froga-bitartekoak (argazkiak) ebaluatzeko eskatzen zaion analisirako eta ikerketarako, polizia edo detektibeen ikerketa-teknikak aplikatu beharko liratekeela. Beraz, instantzia honi dagokion eztabaida juridikoa bestelakoa izango litzateke. Ondorioz, perituak edo ikerlariak bilakatu ginateke, eta Batzorde honi ez dagokio inola ere zeregin hori.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBak honako hau



## **EBATZI DU**

Gaitzestea Aurrera KEk Futboleko Euskal Federazioko Apelazio Batzordearen 2015eko martxoaren 16ko erabakiaren aurka jarritako errekurtsua.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsu-egileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 1a

José Ramón Mejías Vicandi  
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea